

IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI - 2. batxilergoa

KOSTUEN EGITURA

Proiektua martxan jartzeko, hainbat kostu garrantzitsu hartu behar dira kontuan, bai hasierako inbertsio gisa, bai eguneroko jarduerarekin lotutako gastu moduan.

Alde batetik, ekoizpena ahalbidetzeko beharrezkoa da tailer propio bat izatea. Horretarako, Balmasedan kokatutako 300 m²-ko tailer bat erostea aurreikusi da, metro koadroko 700 euroko prezioan, guztira 210.000 euroko kostuarekin. Horrez gain, instalazioa egokitzeko obra txiki batzuk egingo dira, 5.000 euroko kostuarekin. Beraz, tailerraren hasierako inbertsioa 215.000 eurokoa da. Bestalde, bezeroei arreta emateko, Bilbon kokatutako 67 m²-ko denda fisiko bat alokatuko da, hilean 1.650 euroko kostuarekin.

Ekoizpen-prozesua behar bezala gauzatzeko, makinaria espezializatua beharrezkoa da, hala nola: mahaiko zerrak, zinta-zerrak, fresagailuak, lixagailuak eta hauts-erazgailuak. Makina horien guztien kostua 31.625 eurokoa da.

Horrez gain, tailerraren garbitasuna bermatzeko, hilean 180 euroko garbiketa-zerbitzua kontratatuko da.

Produktuen banaketarako bi furgoneta erabiliko dira, 29.930 euroko kostuarekin.

Azkenik, langileen gastuak dira kostu handienetako bat. LIMUk hainbat profil profesional izango ditu: ekoizpeneko langileak, praktiketan dauden ikasleak, programadorea, diseinatzaile industrialak, garraiolaria, administraria, marketingeko langilea eta enpresaburua. Langile guztien hileko soldata-kostua 33.305 eurokoa izatea aurreikusten da.

Horrez gain, lehengaien gastua ere kontuan hartu behar da, hala nola egurra, torlojuak, pintura eta bestelako materialak, guztira 518,61 euroko kostuarekin.

Aipatutako gastu guztiak batuta, LIMU proiektuaren kostu orokorra lehenengo urtean 307.208,61 eurokoa izango da.

KONTZEPTUA	KOSTUA (€)
Tailerra (erosketa + obra)	215.000 €
Makinaria	31.625 €
Denda fisikoa (alokairua, hilean)	1.650 €
Garbiketa (hilekoa)	180 €
Garraioa (furgonetak, urtean)	29.930 €
Langileen soldatak (hilean)	33.305 €
Lehengaien kostua	518,61 €
KOSTU GUZTIRA	307.208,61 €

Langileen soldatak zehatzago	Kopurua	Soldata/hilean	Guztira/hilean	Guztira/urtean
Ekoizpenean	6	2.125€	12.750€	153.000€
Ekoizpenean praktikan dauden langileak	2	750€	1.500€	18.000€
Programadorea	1	2.870€	2.870€	34.440€
Diseñatzaile industrialak	3	2.208€	6.624€	79.488€
Garraiolaria	1	2.199€	2.199€	26.388€
Administralaria	1	2.159€	2.159€	25.908€
Marketingeko langilea	1	2.253€	2.253€	27.036€
Enpresaburua	1	2.950€	2.950€	35.400€

FINANTZAKETA

Aurretik esan bezala, proiektua garatu ahal izateko 307.208,61€ beharko genituzke, finantzaketa lortzeko aukera desberdinak aztertu ditugu:

Tailerra eta obra txikiak finantzatzeko mailegua iruditu zaigu aukerarik egokiena. Tailerrak 210.000 euroko kostua du eta obrek 5.000 eurokoa. Inbertsio handia denez, 5 eta 7 urte arteko mailegua eskatuko genioke kreditu erakundeari. Gainera, tailerra aktibo finkoa da, eta hasieratik enpresaren jabetzakoa izango da, nahiz eta interesak ordaindu behar diren.

Langileen soldatak ere kontuan hartu behar dira, praktiketako ikasleen soldatak eta Gizarte Segurantzako kostuak barne. Hasierako inbertsioa kalkulatzeko langile guztien bi hileko soldatak hartu dira kontuan.

Makineria leasing bidez finantzatzea aukera ona iruditu zaigu. Izan ere, horrela gastuak hobeto kontrolatu eta aurreikusi daitezke. Leasing-aren bidez, hilean 1.318 euro ordainduko genituzke, eta bi urte igaro ondoren makineria gurea izateko aukera izango genuke. Horri esker, ez da beharrezkoa 31.625 euro berehala ordaintzea. Bestalde, hileko kuotak gastu moduan kontabilizatuko genituzke.

Kamioiak renting bidez finantzatuko dugu, batez ere ustekabeko gastuak ekiditeko helburuz.